

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Busturiko Udala****2021erako ordenantza fiskalak**

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/05 Foru Arauetako 16.4. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 70.2. artikuluan ezarritakoa betetzeko, jakinarazten da eranskinean adierazten den Ordenantzaren aldaketaren aprobazioari buruz Udal honek 2020ko urriaren 29ko batzarraldian hartu zuen behin-behineko erabakia behin betikoa bihurtu dela, jendaurreko erakusketa aldian erreklamaziorik aurkeztu ez delako.

Busturian, 2020ko iralaren 28an. — Alkatea, Aitor Aretxaga Telletxea



## I ERANSKINA

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN  
UDAL-ORDENANTZA****4.1 h) artikulua**

«h) Gutxien kutsatzen duten ibilgailuek hobaria izango dute zergaren kuotan, dagokien ehunekoan eta epean, beren ezaugarrien arabera, betiere atal hauetakoren batean ezarritako baldintzak betez gero:

- 1) Motor elektrikoa duten ibilgailuek % 95eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta emisiorik gabekoek % 75ekoa, bi kasuetan mugarik gabe.
- 2) Motor hibridoa duten ibilgailuek edo gasa erregai moduan darabiltzenek (dela gas naturala, dela petroliotik likidoturiko gasak, dela bioetanola) % 75eko hobaria izango dute zergaren kuotan, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasi eta hurrengo bost ekitaldietan.
- 3) Matrikulazio berriko eta 110 g CO<sub>2</sub>/km baino emisio kutsatzaile txikiagoa duten autoek % 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasi eta hurrengo bost ekitaldietan.
- 4) Matrikulazio berriko eta 110 eta 120 g CO<sub>2</sub>/km bitarteko isurtze kutsatzailea duten autoek % 25eko hobaria izango dute zergaren kuotan, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasi eta hurrengo bost ekitaldietan.

Hobari hau eskatu beharrekoa da. Horretarako, ibilgailuak eskaturiko ezaugarriak dituela frogatu beharko da, Ezaugarri Teknikoen Txartelaren bidez, edo, bertan ageri ez badira, datu horiek dituen Administrazio eskudunak eginiko dokumentu bidez.

Hobari honek ibilgailuaren matrikulazioari dagokion zergaldian izango ditu ondorioak, eskaera zergaren autolikidazioa egiteko orduan aurkeztzen bada; eskaera ibilgailuaren matrikulazioa eta gero aurkeztuz gero, hura onartu eta gero izango ditu ondorioak.

Hobari hau ez da beste ezein zerga-onurarekin bateragarria izango Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan ibilgailu bererako.»